

Orregaitik, gai onetan, Aita Villasante'k A. Karmelo Iturriak eta Zabalgoxeazkoa'k argitaratu eben *Paradignas de la Conjugacion Vasca'ri* jarraitzen dautsat. Ona emen biak:

Azkue'k (eta Puxana'k)	Villasante'k eta ab.:	Nik
AREI	AREI	AREI
nik daioedan	nik dagiedan	nik da(g)iedan
zuk daioezun	zuk dagiezun	zuk da(g)iezun
arek daioen	arek dagien (1)	arek da(g)itsen (1)
guk daioegun	guk dagiegun	guk da(g)iegun
zuek daioezuen	zuek dagiezuen	zuek da(g)iezuen
ellos (areek) daioeen	eurek dagien (1)	areik da(g)itseen (1)

Baiña begira: DA(G)IEN adizkerek iru esanai dauz; eta, leen egin dogunez, orain be onetaraxe banandu daikeguz:

eroan DA(G)IEN	para que ellos lo lleven = DA(G)IEN para que el se lo lleve a ellos = DA(G)ITSEN para que ellos se lo lleven a ellos = DA(G)ITSEEN
----------------	--

Adibidez: «Ez *dagitsela* iñok konturik artu» (*Euskal-Biblia*, Tm 2.¹¹, 4, 16): Que no se les tome en cuenta (*Biblia de Jerusalén*). Itzez-itzez: Que nadie les tome cuentas. Liturjiakoak (*C. Urtea*, 66 orri.): «Ez al dautse iñok konturik artuko»: Ojala *no se les tome en cuenta*. (AL itzari buruz, ikusi Azkue, *Morfología Vasca*, 256 orri., 418 zenb. Leenengo itzulpenean *agindu* egiten da, aurki; bigarrena, barriz, «modo optativo edo desiderativo» da: *guraria*. Olabide'k: «Ez bekie yauki». Eta Duvoisin'ek: «Ori ez bekiote iratchik»).

Beraz, erabili dagigun «eroan DAGIOEN» *areik ari* soillik esateko.

Urrengo zenbakirako: Subjuntiboko leen-aldia.

KEREXETA

EUSKERAZAINNTZA

(EUSKERAREN ERRI - AKADEMIA)

Jaun *lxii* argi orri, agur:

Lendakari zaituan Eusko Jaurlaritzak «Euskararen Aholku-Batzordea», *sa'tu duala jakiñik eta 17 aolkulari edo batzordekideen izenak izparringietan ikusi ondoren, Euskerari buruz eztabaidatuena dabillen arazoaren aurrean Batzorde ortako ez-oreka ta alderdikeria nabari beartu du EUSKERAZAINNTZA*

Euskerarekiko ta Euskalerrri- aganako bere leialtasunak.

Eta ez-oreka ta alderdikeria oiek, ondorengo atalotan dituzu argi ta garbi zeazturik:

/goa: Bete-betea Euskeraren serbitzuko lanean diarduan EUSKERAZAINNTZA ez du ezertarako aintzakotzat artu Jaurlaritzak, eta erakunde batzuei euren arteko norbait aurkezteko aukera ta egokiera eman dizkien emon deutesen Jaurlaritza orrek, ez dio / ez deutso iñolako ta ezelako aukerarik eta aipamenik ere opa izan EUSKERAZAINNTZA'ri.

2'goa: Euskerari dagozkionetan / dagokiozanetan joera ez -berdiñak dabiltzanez, oien arteko oreka aurkiturik dagola ikusi-erazo nai izan arren, benetako ez-oreka nabarmena dago Batzorde ortan, geien-geienak ain juxtu ere dalako «batu», orren aldeko borrokan gogor aurpegi email dutenetakoak diralako, eta... «zinpetuak», *au da* «juramentados» ere badiralako bat eta bi baiño geiago.

3'goa: Erri-euskera bete-betea landu ez dutenak, gaiñera, geiegi dira Batzorde ortan, euskerazko beren idaizien kopurua, sakontasuna ta akatsak aztertzeak uka-eziñeko aitorpena egiten daunez.

4'goa: Erri-euskera biziaren aldeko lanean eta ekiñean diardutenen artekoak —ez bakarrik gutxiegi!—, Batzorde ortan iñor gutxi artu ditu Jaurlaritzak.

5'goa: Euskalkirik erabilliena BIZKAIERA da zailan tzarik gabe esateko —eta orain baztertu nairik borrokatuena ere bera da!—, baiña bitartean gutxiegi dira Batzordean Bizkai'ko idazleak eta jakitunak, eta are gutxiago BIZKAIERAREN ALDEKOAK.

Lendakari fauna, ez-oreka ta alderdikeria oiek zuzen-bidean orekatuko ta Batzordea EUSKALERRI OSOAREN serbitzurako era OSOAGOAN antolatuko duzun itxaropen betean, zугanako begirune guztiz eta Euskera-rekiko leialtasun zindoz, agur.

Ondarru'n 1982'go otsaillaren 20'an.

«EUSKERA ZAINNTZA»'ko

Lendakari-ordea OLAZAR'tar Martin

Idazkaria GASTAÑAGA'tar Josu

JAURLARITZAKO LENDAKARI

JAUN TXIT ARGIAI

GAZTEIZ'era